

IGNACIO SÁEZ
ÉL Y LLO
(LA LENGUA OBESA)

2025eko martxoaren 14tik maiatzaren 10era

CarrerasMugica

CarrerasMugica galeriak martxoaren 14tik maiatzaren Xra arte aurkeztuko du ÉL Y LLO (La Lengua Obesa), Ignacio Sáezen bigarren bakarkako erakusketa, 2008an egindakoa-ren ondoren. Hogeita hamar koadro inguru dira, eta galeriako erakusketa-espazio osoa hartzen dute. 2000 eta 2013 artean hasi zituen; batzuk 2023an berriz hartu, eta aurren amaitu ditu. Beraz, lehendik zeuden obrak berraztertzeke proiektu berezia da, margolariaren ohiko erakusketak ez bezalakoa. Proiektu honen parte gisa eta erakusketarekin batera, El curador (Caniche arg.) liburua egongo da eskuragarri. Txomin Badiola da fikzio horren egilea, eta, gainera, erakusketaren aukeraketaz eta antolaketaz arduratu da.

ÉL Y LLO (La Lengua Obesa)

Orain dela urte batzuk, Ignacio Sáezek obra batzuk sartu zituen lagun batek* lgorren zuen lonja batean, garai hartan ia hondakintzat jotzen baitzituen. Han egon dira gordeta, orain dela gutxi, beste kontu batzuk zirela-eta, Bilboko Arte Ederren Museoko** jendeak lanak ikusi, eta haiei buruz arreta erakarri ahal izan duen arte. Aurkikuntza horretatik abiatuta, obra horiek oinarritzat hartu eta erakusketa bat egiteko eskatu zuten, eta azkenean CarrerasMugica galeriak hartu du horren ardura.

Obra-multzo hau heterogeneoa da eta modu desordenatuan agertu zait; alabaina, lehenbizi ikusi nuenean, iruditu zitzaidan lanek osotasun koherente bat zutela, han bildu zituen zoria alde batera utzita, eta elkarturik jarraitzen zutela, hain zuzen, egileak suntsitzeko eta berreraikitzeke prozesu konplexu baten subjektu eta objektu bihurtzeko izan zuen alde zurreko jarrera irmogatik: Pintorea, barneko deabru batek akuilatuta (zeina munduarekin etengabeko kontraesanean dagoen organismo biologiko eta psikiko baten pulsio muturreko eta bateraezinenen metafora besterik ez den), hizkuntzaren bilbe labirintikoetan murgildu zen, haiek astindu zezaten utziz, eta barrutik borrokan aritu zen, nolabaiteko nagusitasuna eskuratze-ko, elementuak eta horiek eratzen dituzten erlazioak birdefinituz. Eta artistak bere buruarekiko, munduarekiko eta hizkuntzarekiko duen performatibitateari buruzko inguruabar hori, obrak sorrarazten dituen, azkenean haien nukleo tematiko gisa ere islatuko da. Horrela, (pintorearen) gorputza, hiperplasia eta apendize luza-tuetan desitxuratuta, zatitu egingo da, eta haren puskak muturreraino eraldatuko dira, organo berriak garatuz. Metamorfizatu eta animalia edo haien afal bilakatuko da, sexuz aldatuko da, eta berriz sortu eta azaleratuko da gorputz irudikatu berri bat bezala, hizkuntza-zeinu gorputzuz eta taupakariz egindako gorputz baten gisa, haiekin nolabaiteko adiskidetzeko bat probatzeko. Bere subjektibotasuna bera proba-

tzen da bere pinturan, eta horrek izaera megalomanoa ematen dio lanari, koadroetan bera aipatzen duten zeinuak nonahikoak direlako; baina izaera hori, gainera, zaur-garria eta prekariora da, jasaten dituen ordaliak direla-eta. Ildo horretan, lan-multzo honen izaera epikoaz hitz egin daiteke, non heroi-antiheroiak (artistak berak) bere balentria txikiak eta ez hain txikiak egiten dituen (baita porrot egiten ere), desiratzen duen gorputz gisa bere patua markatzen duten entitate gorenekiko (antzezpenaren kaiola zurrunkiko).

Margolariaren nia bere pinturan agertzen da Bestearen ideiatik bereizi ezinik. Hala ispiluak islatutako irudi gisa hartuta (bere buruaren irudikapen askotarikoetan), nola ni zatikatu eta anitzetik sortutako alter-ego gisa (Ignaciok La Lengua Obesa deitzen duena) pertsonaia batean berrosatua, oso ezaugarri zehatzekin (beltzen aurpegi desitxuratua, apendize luzeak garezurrean, bota handiak jantzita eta pixoihal moduko bat eta ez besterik soinean, non itxuraz beste objektu batzuk pilatzen dituen), zeintzuek identitatea eman eta, aldi berean, kendu egiten dioten, zeinuen desberdintasuna dela-eta zaila baita adiskidetzeko. Bere burua eta pertsonaia hori (margolariaren bestetasun munstrozkoa) agertzeaz gain, koadroen multzo batean, bestetasun erreala afektibo sentimentala harrapatu nahi du (ia ezinezkoa dena): bere aldizkako baina, aldi berean, etengabeko afektuen emakumea (beti itzultzen baita afektu horietara).

Pintura da dena gertatzen den lekua, eta, era berean, betetzailaren gorputzak espazioaren gorputzarekin duen eragin-trukearen lekua. Leku horiek itxiaren eta irekiaren polaritatean iragaten dira, giltzapetzearen eta irekitzearen polaritatean. Leku batzuetan, artistaren jarduerari dagozkion horietan (estudioa, biltegia, galeria,

museoa), giltzapetu egiten da haiekin batera gorputza eginez, horrek dituen inplikazio —sarri— zitalei aurre eginez, eta errealtate berri baten modura sortzen da, proban jarritako nerbio-sistema baten kataklismo pultsionaleraino blaitutako zeinu materialeraino egindako errealtate gisa. Bestalde, eremu batzuetan irekitzen da (gorputza paisaiarena izango da), iheserako eta topaketarako lekuak dira horiek, hizkuntzaz haraindiko izateko arrazoia dute, baina, hala ere, ilusiozko errealtate gisa agertzen dira, errepresentazioaren mende daude gainerako guztia bezala, bakarrik atzeman daitezke errealtaren berezko arrotasuna itzultzen dien desfamiliarizazio-ariketa bat eginez.

Eta pinturaren bidez, bestetasunarekiko negoziazioen bidez, errepresentazioaren lekuetara eta haren zirrikitu errealtetara egindako joan-etorrien bidez subjektibatze programari hori guztiaren buru izango da ez-izatearen, ezerezen eta heriotzaren zulo beltz handia; etsipenez ulertuta desira eta konkista ñimiñoen hutsunean lan egiten dela, konkistek etengabe ekartzen dutela gogora «dena harrokeria dela» (koadroa vanitas bihurtzen da), baina artista horretara erabat makurtu gabe, artea hilkortasunaren kontzientzia horren kontra aktibatzen baita.

Hasieran, nolabait mesfidantzaz bada ere, Ignacio Sáezek erakusketa honetako baldintzak onartu zituen (hasieran Igorren baztertutako koadroak sartu behar zituela zen baldintza nagusia), eta, horrenbestez, neuk —unean uneko kuratore gisa (koadro hauek ikusi nituenean ezarri zidaten kontakizunaren lehen intuizioa errespetatzeko eta erakusketaren antolaketa bertan oinarritzeko prest)— onartzen nuen Ignaciok, enkarguaren eta inaugurazioaren artean zegoen urtebete baino gehiagoko tartean, bere nahierara eraldatu ahal zituela, baita planteamenduen eta egungo obren artean muturreko desoreka sortu ere (kasu askotan gertatu den bezala); eta desoreka hori eskubide osoz adierazi beharko da esperientziaren funtsezko parte den zauri edo orbain gisa.

Normalean komisarioari egokitzen zaizkion eginkizunetarako oso prest ez nengoenek, eta Ignaciorekin lantzen ari nintzen proiektuaren izaera eta aipatu berri dudana egoera kontuan hartuta, erabaki nuen obra plastikoak erakusteko nire laguntza liburu batean gauzatzea, izenburu hau hartuta: EL CURADOR (KURADOR-EA) Idazketa-ariketa hau, erremediorik gabe, fikzioz bildu behar izan da, harreman honetan zerikusia duten gaiak modurik zintzoenean jorratu ahal izateko, nire adimenaren arabera. Esan beharrik ez dago ezinbestez elkarrekin bizi behar duten bi modu autonomo direla (obra plastikoak eta testu literarioa), bata bestearen justifikazioa edo azalpena izan gabe. Soilik proiektuaren barruan aldi berean egotetik abiatuta atera ahal izango dira bakoitzak atera nahi edo behar dituen ondorioak.

Txomin Badiola, 2025eko martxoa

*Ignacio Elexpe

** Miguel Zugaza eta Gilermo Zuaznabar.





























Izenbururik gabea, 2004. Olia mihise gainean. 114,5 x 146,5 cm.



Izenbururik gabea, 2004. Olia mihise gainean. 115 x 147,2 cm.



Izenbururik gabea, 2004. Olia mihise gainean. 110 x 145 cm.



Izenbururik gabea, 2004. Olia zur gaian. 122 x 250 cm.



Izenbururik gabea, 2004
Olíoa zur gainean
96,5 x 122 cm.

Izenbururik gabea. Olíoa mihise gainean. 195 x 130 cm.



Izenbururik gabea, 2004. Olia zur gainea. 97 x 122 cm.



Izenbururik gabea, 2004. Olia zur gainea. 97,5 x 122 cm.



Izenbururik gabea, 2004. Olia mihise gainean. 115 x 146,5 cm.



Izenbururik gabea, 2004. Olia mihise gainean. 115,2 x 147 cm.




Izenbururik gabea, 2004. Olia mihise gainean. 114,5 x 146,5 cm.



Izenbururik gabea, 2008
Olioa mihise gainean
250,5 x 200 cm.

Izenbururik gabea, 2008
Olíoa zur gainean
248,3 x 122 cm.







Izenbururik gabea, 2006-2008. Olia mihise gainean. 200 x 200,2 cm.



Izenbururik gabea, 2003-2013. Olia zur eta mihise gainean. 190 x 196 cm.

Izenbururik gabea, 2003 - 2008
Olioa mihise gainean
194,5 x 130 cm.





Izenbururik gabea, 2003-2004. Olia zur gainean. 244 x 122 cm. bakoitza



Izenbururik gabea, 2008. Olia zur gainean. 96,5 x 122 cm.



Izenbururik gabea, 2008. Olia zur gainean. 250 x 122 cm. bakoitza



Izenbururik gabea, 2000
Olíoa mihise gainean
82 x 66 cm.

Izenbururik gabea, 2001
Olioa zur gainean
250 x 122 cm.



Izenbururik gabea, 2001
Olioa zur gainean
244 x 122 cm.





Izenbururik gabea, 2008
Olia mihise gainean
195,5 x 130,3 cm.



Izenbururik gabea. Olia zur gainean. 92 x 122 cm.



Izenbururik gabea, 2013. Olio zur gainean. 96,5 x 122 cm.



Izenbururik gabea, 2013. Olioa zur gainean. 96,5 x 122 cm.



Izenbururik gabea, 2013. Olia zur Ganean. 96,5 x 122 cm.




Izenbururik gabea, 2001
Olíoa zur gainean
250 x 122 cm.



Izenbururik gabea, 2013. Olia mihise gainean. 81 x 100 cm.



Izenbururik gabea, 2013. Olioa mihise gainean. 81 x 100 cm.



Izenbururik gabea, 2013. Olíoa zur gainean. 112,6 x 146,5 cm.

CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725